

Hara hor Mitxelenaren hamabigarren liburua. Bera beza-lako idazle batentzat ez dira liburu asko. Hau berau hor-he-men barreiatutako lanez hornitua da. Baina bere lan guziak era honetara bildurik, zenbat liburu osatuko lituzke? Beste hamabi haina bai noski. Baina Mitxelenaren kasoan ez dut uste kantitatea hain kontutan hartzekoa denik, baizik bere kalitatean datza gizon honen emaitza. Iker lanak hala bai dira. Gainera, kalitateak berakin du, iker lan batean, ematen diren aburuen iraupena. Horregatik, eta liburu honetan argi dagoena da, aspaldi idatzitako edozein lan hartzen dugula-rik, gaur egungoa dirudi; edo gure begien aurrean lehen lau-so genuena orain argi ikustea. Hizkuntza kontuan, idazkera-tik hasita, urte askoren abantailaz ibili bai zaizu gure gi-zon hau.

*Lengua e historia* deritzon liburu honetan lehenik aldiz-karietan barreiatuak zituen hogetahamabost lan hautatu bil-tzen ditu. Gehienak gazteleraz idatziak eta batzuk frantsezek. Bertako aldizkarietatik baino gehiago herbestekoetatik bil-duak. Liburu honetako lanik zaharrena 1952an *Emerita* aldiz-karian Tivisa-ko paterari buruz eman zituen eritziak eta la-nik berriena *Revista de Occidente*-n euskara idatziaren nor-malizapenari buruz 1982an publikatua. Baina, lan bilduok ez daude argitaratu ziren kronologiaz emanak, gaietan elkarri hurbilduak baizik. Azkenean hamar orrialdeko eraskin edo hitzatz (Epílogo) bat dakar, 477. orrialdean, lehengo lanen osagarritz, zuzenketaz eta oharrez. Eta, hizkuntzari buruz zer ez dakarren aipatzea errezagoa zaigu zer dakarren baino. Hainbeste gauza bai dira liburu mardul honetan erabiltzen dituen gaiak. Bertan, nola ez, euskal literaturak ere badu bere tokia.

Estrukturalismo teorietatik hasi eta euskara-kaukasikora arte urratzen ditu: gramatika generatiboaz, dialektoen zatike-taz, konparaketaz eta abar. Baina baita ere iragarki zaharrez,

erromatar, zeltiberia, indoerpar, iberiko,... bidenabar gure hizkuntzaren sustrai zaharrak ikutuz. Era berean, egungoari begiratzuz, elebitasunez, hizkuntzaren normalizapenez eta soziolinguistika gaiak ikutuz. Gai bakoitzean bere jakintza sakona erakutsiz. Onomastika eta hiztegiak ere leku berezia dute. Bestalde, zenbait euskalaren lanak ere aztertzen ditu, aburu zorrotzez, baina Koldori beti nabari zaion zentzuz, eritziak ematean zuhur eta bermaz.

Lan hautatuok liburu batean eskuratu ahal izateko aukera bikaina eskaintzen zaigu. Aldi berean, hainbeste eratako lanak direnez, oso ongi datoz Maite Etxenikek prestatu dizkion aurkibideak: 490. orr. liburuan barna aipatzen diren izen zerrendaz eta 502. orr. gaiei buruz.

Inork gure hizkuntzaren historiaz, etimologiaz, hiztegiak, gramatikaz, euskalkiez, batua,... ezer jakin nahi baldin badu, beharrezko du liburu honi begiratzea.

J. S. M.